

CANVAS EREDUEN ATALAK



VoltBike

SARRERA

Gure enpresak bizikleta elektrikoen alokairu-zerbitzua eskaintzen die herritarrei. Hasiera batean hiri bakar batean jarriko dugu martxan, baina etorkizunean, zerbitzua ongi funtzionatuz gero, hiri gehiagotara zabaltzeko asmoa dugu.

Bizikletak hiriko aparkaleku adostuetan egongo dira eskuragarri, eta horietan bertan kargatuko dira, bai plaka fotovoltaikeen bidez, bai energia sortzen duen sorgailu txiki baten bitartez. Gure bizikletek 20 km-ko autonomia izango dute, eta horri esker energia berriztagarrien erabilera sustatuko dugu.

Alokairu modalitateak

Erabiltzaileek alokairu denbora hauen artean aukeratu ahalko dute:

- 1 ordu
- 12 ordu
- 24 ordu



Aukeratutako denbora amaitzean, bizikleta automatikoki blokeatuko da, eta erabiltzaileak pedaleatu beharko du hurbileneko aparkalekura itzultzeko, bateriak ez duelako nahikoa energia izango ibiltzen jarraitzeko.

Arauk eta zigorrak

Bizikleta hiriaren farola batean edo baimendutako guneeetatik kanpo uzten bada, enpresak 30 €-ko multa ezarriko du. Horrez gain, alokairua hastean erabiltzaileak fidantza bat utzi beharko du; fidantza hori zigorrak edo kalte-ordainak ordaintzeko erabiliko da beharrezkoa balitz. Araurik ez bada hausten, fidantza oso-osorik itzuliko da.

Segurtasuna eta jarraipena

Bizikleta guztiek GPS lokalizadore integratua izango dute, eta horrela enpresak eta erabiltzaileak une oro ibilgailuaren kokapena ezagutu ahalko dute. Honek segurtasuna handitzen du eta erabilera desegokiak detektatzeko aukera ematen du.

